


10 urte



# ITURRI ONDOAN

2023

Uztailean, Plaza Zaharrean



A blue-tinted photograph of a street scene. In the foreground, there is a fountain with a decorative top. In the background, there are buildings with windows and balconies. The overall atmosphere is bright and slightly hazy.

**“Iturri zaharretik  
edaten dut,  
ur berria edaten,  
beti berri den ura,  
betiko iturri zaharretik”**

*(Joxean Artze)*

# ITURRI ONDOAN

## **10 urte bete ditugu eta ospatu egin nahi dugu!**

Dakizuenez, ITURRI ONDOAN egitasmoaren ardatza, euskaraz sortu eta euskaraz pentsatutako disziplina desberdinetako kultur ekitaldiak antolatzea da. Gaur egun erreferente diren kulturgileak ekartzea batetik, eta herriko jendea harremanetan jarriz, bertakoekin ondutako ekimenak plazaratzea bestetik.

Horixe da, seguru asko, egitasmoa gure kuttunenetakoa izateko arrazoia. Herriko ekimen horietan parte hartzeko jendea topatu, bilerak egin, entseguetan elkartu, eta egindakoa eskaintzea ederra da guretzat. 10 urte hauetan harreman sare berriak eraiki ditugu horrela, euskaraz eta euskaratik; adin desberdinetako jendea batu dugu, inguru diferentetakoak, pentsamolde anitzetakoa...

Ikusleari begira jarriz gero ere, egitasmoa finkatu dela uste dugu; ikusentzule batzuk fidelizatzea lortu dugula. Herritarrok badakizue uztailean, ostiralero, euskarazko kultur ekitaldi bat izango duzuela Plaza Zaharrean. Askok elkar ezagutzen duzue eta zerbait partekatzen; komunitate baten parte sentitzen zarete (hala espero dugu, behintzat) eta hori pozgarria da, oso, guretzat.

Konbentzituta gaude hau badela euskal hizkuntza komunitatea sendotzeko, harro sentiarazteko eta birsortzeko modu bat. Eta herria egiteko modu bat, baita ere. Debak euskal herri izaten segi dezan bide bat, oholtza gainean zein aurrean daudenak elkarrekin egiten jarraituko dutena.

EUSKARA BATZORDEA-2023

Oihane



Miren



Joanes



Amets



ITURRI ONDOAN

## “Zenbat gara? Lau? Bat? Hiru, Bost, Zazpi?”



Bakoitzak jar diezaiola zenbakia galdera horri baina gu saiatu gara euskal herria osatzen dugun guztion errepresentazio bat hona ekartzen: Oihane Arabatik, Joanes Nafarroatik, Miren eta Amets Iparraldetik eta Gipuzkoatik eta Maite Bizkaitik. Euskal Herriko txoko desberdinetatik etorritako lau bertsolariak eta gai jartzailea saiaturiko dira, umorez batzuetan, seriotasunez beste batzuetan, euren artean zubiak eraikitzen, konplizitateak harilkatzen, iturri zaharreko ur berria guregana ekartzen, egarriz gera ez gaitezen.

**Bertsolariak:** Oihane Perea, Miren Artetxe, Joanes Illarregi, Amets Arzallus.

**Gai-jartzailea:** Maite Berriozabal.

---

Uztailak 7, ostirala • 22:00

---

# Begiradak



literatura, irudiak eta musika

# BEGIRADAK



Iturri ondoan antolatzen hasi ginela **10 urte** izango dira aurtten eta **BEGIRADAK** urtero egon da programazioaren barruan.

10. aldiz izango dugu, beraz, BEGIRADAK-ez gozatzeko aukera. Zoriontzeko modukoa da, ezta? 10 urte horietan herriko jende mordo batek hartu du parte, batzuk irudiak egiten eta besteak literatur piezatxoak sortzen. Lan ederregiak izan dira, unetxo batean gozatu eta hain hauskorra den memorian geratzeko. Askok, testuak eta irudi zehatzak baino, geratu zitzaizkien emozioak eta sentsazioak gogoratzen dituzte.


Teknologiak bide ematen digu orduko hura berriz bizi ahal izateko, testu eta argazki haiek guztiak aldean eramateko. Mugikorra eskuan, herriko dendetan, bankuetan, posteetan,... jarri ditugun QR kodigoak eskaneatu, eta, begiz nahiz belarriz, begirada berriak deskubrituko dituzue.

Bestalde, 10. honetan ere, izango dugu aurtengo begirada berriekin gozatzeko aukera; betiko lez, iturri ondoan.

---

Uztailak **14**, ostirala • 22:00

---







# ITURRI ONDOAN 10 urte



# ITURRI ONDOAN

10 urte

Goazen ba ospatzera. Euskaratik eta euskaraz, herritarrok sortutako, antolatutako, bideratutako ekimen hau 10. urtez egiten dugula-eta, geure buruak zoriontzera; goazen gozatzera


# Iturri berriak



# ITURRI ONDOAN

Egitaraua:

- 12:30ean **ITURRI BERRIAK**. 3 ibilbide sekretu, 3 iturri berri. Amalur, Eguzki eta Ilargik gidatuko gaituzte, 20 bat minutuko kultur emarietara. Non, zer, nor? Sekretua.



Iturri berrietarako ibilbidea egin nahi baduzu, gonbidapena jaso beharko duzu, Turismo bulegoan, uztailaren 14a baino lehen.

- 15:00etan **ITURRIAN GALERNA**. Bazkaria kioskoan (eguraldi txarra egiten badu, karpan). Sareak sendotzen. Bazkaria gazte asanbladarekin batera antolatuko dugu, Galerna festarekin bat eginez.

Bazkaria: 15€ (natxoak, paella, postrea eta kafea). Txotxa: 5€ (beste zerbait nahi duenak, berak ekarri beharko du). Bere kontura bazkaria egin/ekarri baina mahaian bazkaldu nahi duenak txartela hartu beharko du: 2€.

Txartelak eskuratzeko tokiak: Turismo bulegoa eta Zalburdi taberna.

- 17:30ean **ITURRI ONDOKO FESTA**, Plaza Zaharrean. Herritarrek herritarrentzat: kantuak, jolasak, dantzak, istorioak, ... (eguraldi txarra egiten badu, karpan).

---

Uztailak **15**, larunbata

---



# TONBOLA

HIKA teatroa

“Europaren satira basatia.  
Europako muga guztiak  
gaindituko dituen  
kabaret poetikoa”



**-BIZITZA TONBOLA BAT DA-** ideia abiapuntu hartuta hasi ginen TONBOLA eraikitzen. Nork esango zigun orduan, kontzeptu horren egiak gaur horren krudel eragingo zigunik? Europaz hitz egin nahi genuen. Europako muga eta terri-  
torioez. Hitz egin nahi genuen askatasunaz, giza mugimenduez, migrazioaz, enpa-  
tiaz, solidaritateaz... Nork esango zigun orduan, hitz horien egia kolokan gera  
zitekeenik? Europako muga guztiak gaindituko dituen kabaret poetikoa. Umorea  
eta salaketa. Absurdoa eta errealitate gordina. Koktel “esplosiboa”.

Uztailak **21**, ostirala • 22:00

Ghera



# GHAU

“Ordubeteko emanaldia musikariaren eta dantzariaren arteko elkarrizketa bat da, koreografia zaindu batek lagunduta”



Musika oinarri eta abiapuntu duen proposamen artistiko anitza da GHAU, 2018an **Gartxot Unsainek** sortutakoa. Barneko hausnarketa eta sentimenduei musika jarritz, bi disko, bi eleberrri eta hainbat bideo kaleratu ditu dagoeneko proiektuaren baitan. Bidean, ezinbesteko dira **OSA+MUJIKA** konpainiako Jaiotz eta Xabier, proposamenari unibertso bisual bat eman eta oholtza gaineko mugimendu zein jantziak sortzeagatik.

**Musikaria + zuzeneko dantzaria:** Gartxot Unsain

**Arte zuzendaritza:** OSA + MUJIKA

**Koreografia + zuzeneko dantzaria:** Jaiotz Osa

**Jantziak:** Xabier Mujika

<https://www.youtube.com/watch?v=swZTnSN1sss>

---

Uztailak **28**, ostirala • 22:00

---



### “BERTSOLARIAK”

Uztailak 7 - 22:00

bertso  
saioa



### “BEGIRADAK”

Uztailak 14 - 22:00

literatura,  
irudiak,  
musika



### “ITURRI ONDOAN

10 urte”


Uztailak 15  
iturri berriak,  
bazkaria, festa



### “TONBOLA”

Uztailak 21 - 22:00

antzerkia



### “GHAU”

Uztailak 28 - 22:00

musika



Iturri  
ondoan

# ITURRI ONDOAN